

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua arrakasta izateko, bi dira identifikatu ditugun jarduera nagusienak:

Jarduera garrantzitsuena bezela, unibertsitateko beste produktuetatik desberdintzea finkatu dugu. Kalitatezkoak eta merkeak diren produktuak eskaini behar ditugu. Gure lehiakide nagusienak eskaintzen ez duten zerbait aurkitu behar dute bezeroaek gure foodtrukean.



Hau da, unibertsitatean saltzen dituzten produktuen kontra "borrokatu" beharko dugu: tortila patata oso merkea, menu oso merkeak, supemerkatua... Gainera, ezinbestekoa da gure negozioa ezaguna egitea, bezero gehiago erakartzeko. Unibertsitate kanpusa handia baita. Ikasle eta langile asko daude, hortaz, komunikazioa funtsezkoa izango da, beste aukeren gainetik egoteko.



Hori dela eta, egunero sukaldatzen ditugun produktuen bideoak, TikTok-era igoko ditugu. TikTok-en birala eta bisita asko lortzea oso erreza baidelako. Gainera, foodtruck-arentzako Instagram bat sortuko dugu eta honetan, gure negozioa promozionatu ahal izateko, hainbat "challenge" egitko informazioa publikatuko dugu, adibidez, agian egun batean "food-challenge" bat egiten badugu, honetan partu ahal izateko informazioa, instagramean aurkitu ahal izangoko da.